

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

TXOSTENA TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN AURREPROIEKTUA ONARTZEKO ETA PROIEKTUAREN IDAZKETAREN KONTRATAZIO-ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEKO

1.- PROIEKTUA GARATZEKO ARAU JURIDIKOA

Azken hamarkada hauetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaia poliki-poliki sartzen joan da estatuz gaindiko entitateen zein estatuen agenda politikoetan, baita horien antolakuntza administrazioetan ere. Ildo horretan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko, botere publikoen konpromisoa adierazten duten arau garrantzitsu eta ugari sustatu dira Nazioarteko Erkidegoan, Europar Batasunean, Espainiako Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

NAZIOARTEKO ARAUDIA

1952, Emakumeen eskubide politikoei buruzko konbentzioa

1967, Emakumearen aurkako bazterkeria guztiak ezabatzeari buruzko Deklarazioa.

NBEk aldarrikatu zuen eta emakumeentzat bermatu beharreko eskubideen zerrenda bat osatu zen, haiek edozein kultura, egoera juridiko edo nazionalitatekoak izanik ere.

1975, Mexiko- Emakumeari buruzko lehen Mundu Konferentzia.

1975- Emakumearen Nazioarteko Urtea

1979- CEDAW- Emakumearen aurkako bazterkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko hitzarmena.

Berdintasun-printzipioa aldarrikatzen zuten eskubideak (ekonomikoak, lan arlokoak, politikoak, sozialak eta zibilak) unibertsalizatzeari dagokionez.

1980- Kopenhage- Emakumeari buruzko bigarren Mundu Konferentzia.

Nazio-neurriak hartzea bultzatu zuen emakumeek jabetzarako eta ondareen kontrolerako dituzten eskubideak indar handiagoz bermatzeko eta, era berean, eskubideak hobetu zituen emakumeen herentziarako, guraso-aginterako eta nazionalitatea galtzea dela-eta.

1985-Beijing- Emakumearen hirugarren Mundu Konferentzia.

Berdintasuna giza jarduera ororen baitakoa dela aitortzen da. Horrenbestez, berdintasuna lortzeko ezinbestekoa da auzi guztietan emakumeen ikuspegia eta partaidetza aktiboa izatea, ez soilik emakumearekin zerikusi zuzena duten gaietan.

1993, Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko adierazpena

1995-Beijing- Emakumearen laugarren Mundu Konferentzia.

Arreta emakumearengan jartzetik begirada genero kontzeptura luzatzeko premia aitortu zen. Hori izan zen aldaketa nagusia; hala, gizarteko egitura osoa eta emakumeen eta gizonen arteko

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

harreman oro berrebaluatu egin behar zirela aitortu zen.

1996, Eskubide Zibilei eta Politikoei buruzko Nazioarteko itunak, baita Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturelei buruzkoak ere.

2001- Emakumearen eskubide politikoei buruzko hitzarmena.

Hauteskunde guztietan bozkatzeko eskubideari, berdintasun baldintzetan hautatua izateko eskubideari eta kargu politikoak eta edozein funtzio publiko betetzeko eskubideari buruzkoa.

EUROPAKO ARAUDIA

1957- Erromako Tratatua

119. artikulua- Berdintasun-printzipioa gizonezko eta emakumezko langileen soldatetan, lan berdina egiten dutenean.

1997- Amsterdameko Tratatua

3.2. artikulua- Lehen aldiz zeharkakotasunaren kontzeptua barneratzen da.

6.A. artikulua. Kontseiluak bazterkeriari aurre egiteko neurriak har ditzakeela ezartzen da.

2000/43/CE Zuzentaraua, 2000ko ekainaren 29koa, pertsona guztiak berdin tratatzeko printzipioa aplikatzeari buruzkoa, arraza edo etnia jatorria edozein izanik ere.

2000/78/CE Zuzentaraua, 2000ko azaroaren 27koa, Enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoa.

2004/113/CE Zuzentaraua, 2004ko abenduaren 13koa, Gizon eta emakumeen tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatu duena ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean eta horietaz hornitzean.

2011, Estambulen izenpetutako Etxeko indarkeria eta emakumeenganako indarkeria prebenitzeko eta horren aurka borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena.

ESPAINIAKO ESTATUA

1978- Espainiako Konstituzioa

14. artikulua. Espainiarrak berdinak dira legearen aurrean; debeku da, bada, inolako bazterkeriarik egitea sexu arrazoiengatik.

9.2. artikulua. Botere publikoen egitekoa da bideak jartzea norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezen; askatasun eta berdintasun xede hori galarazten edo osotara garatzea zailtzen duten oztopoak kentzea, eta herritar guztiei aukera egokia ematea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko.

1999- 39/1999 Legea, Langilearen familia- eta lan-bizitza uztartzea sustatzekoa.

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

2004- 1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.

2007- 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Autonomia-Estatutua

91. artikulua. Berdintasunerako eta sexu arrazoiengatik bazterkeriarik ez izateko eskubidea.

9.2.d) artikulua Botere publikoek berdintasun eraginkor eta benetakoa lortzeko baldintzak bultzatzeko eta eragozpenak kentzeko dituzten betebeharrak ezartzen dira.

4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetarako, foru eta udal administrazioak barne, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskumen esparrua zehazten du.

Tratu berdintasunari dagokionez, Euskal Herriko botere publikoen esku-hartzea zuzendu eta bideratu behar dituzten printzipio orokorrak ezartzen dira: aukera-berdintasuna; aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua; genero ikuspegia barneratzea; ekintza positiboa; sexuarekin lotutako rol eta estereotipoak ezabatzea; ordezkaritza orekatua; koordinazioa eta lankidetzatza.

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Araua

5.h. artikulua. Sustapen neurriak ezartzea, udalek eta gainerako toki entitateek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako programak eta jarduerak garatu ahal izateko.

18. artikulua. Jarduera esparruak

18.b.- Gipuzkoako udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategikoak babestea.

18.f.- Emakumeen jabeakuntza indibiduala eta kolektiboa sustatzen duten espazio eta prozesuak sortu eta finkatzen laguntzea, bereziki emakume gazteena eta ahultasun larrienean dauden emakumeena.

TOKIKO ARAUDIA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 28. artikulua, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzekoa

Bertan zehazten denez “Berez beste herri-administrazio batzuei badagozkie ere, udalerriek haien jarduera osagarri batzuk egin ditzakete, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumearen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumena babesteari buruzkoak”.

4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa

7. artikulua.- EAEko udalek, indibidualki edo mankomunitateen bidez, bete beharreko hainbat funtzio barneratzen ditu.

TOLOSAKO UDALA

2000, Berdintasunerako Batzordearen sorrera.

2006, Berdintasunerako Europako Gutunari atxikimendua.

2008, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Tolosako Udal Ordenantza.

2009, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2009-2011).

2012 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa.

2013, Genero Zeharkakotasunaren proiektuaren onarpena.

2014, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa eta III. Plana (20015-2020).

2017, Tolosako Plangintza Partekatua (2017-2027).

2.- BERDINTASUN POLITIKEN BILAKAERA

Azken hamarkadotan, genero-politiken gaia garatzen eta finkatzen joan da, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko asmoarekin. Hala, besteak beste, gai honi buruzko lege-neurri sorta bat onartzea erabaki dute herrialde askok; berdintasunari buruzko erakundeak sortu dira; egitasmo eta programa espezializatuak jarri dira martxan; alor honetako proiektu sektorialak jarri dira abian.

Orokorrean, esan ohi da berdintasunaren alorrean hiru politika publiko mota handi daudela: tratu-berdintasuna; ekintza espezifikoa; eta, azkenik, *mainstreaming-a*. Hiruek helburu bera dute, emakumeen eta gizonen berdintasuna, baina estrategia desberdinez baliatzen dira eta hamarkada desberdinetan agertu dira.

60ko hamarkadan, 1978ko Konstituzioak emakumeen eta gizonen berdintasuna modu esplizituan onartu baino lehen, sortuta zegoen halako egoera edo jokaleku bat, aldaketa horiek gerta zitezen. Gizartearen balio, jarrera eta jokaeretan aldaketak eragin zituzten landatik hirirako migrazioak, lan-merkatuan emakumeen parte-hartzeak gora egite etengabeak eta sekularizazio-prozesuek. Testuinguru horretan, zaharkituta gelditu ziren familiari buruzko politikak eta bestelako politika sozial eta fiskalak, zeinak oso modu hertsian sendotzen baitzuten emakumeen zeregina ama eta emazte gisa.

Hala, 70eko hamarkadan, aurrerapauso bat eman zen emakumeen eskubide zibilei dagokienez. Nabarmen zabaldu zen gizonekiko tratu-berdintasuna bermatzen zuen araudia: soldata-berdintasunari buruzko legeria sartu zen; elkarren artean adostutako dibortzioa legeztatu zen; emaztearen eta senarraren berdintasuna, eta abar. Helburua berdintasun formala bermatzea zen.

Hamar urte beranduago, 80ko hamarkadan, ikusi zen horrelako neurriak ez zirela aski benetako berdintasuna lortzeko. Horregatik, politika espezifikoa jarri ziren martxan, emakumeei



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

zuzendutako konpentsazio-ekintzak zirenak, eta helburua zen, abiapuntuan bi sexuen arteko berdintasuna bermatzeaz gain, emaitzak ere bidezkoak edo ekitatiboak izatea amaieran. Berdintasuneko erakunde espezializatuak sortu ziren eta esperientzia eta bultzada politikoa eman zizkieten neurri horiei. Bestalde, berdintasun-planak, proiektuak eta egitasmoak sortu ziren. Azpimarratu behar da berdintasuneko erakunde instituzionalak eta alor honetako plan eta egitasmoak sortu zirela Mugimendu Feministak egindako erreibindikazioen eta exigentzien ondorioz, eta horiek emakumeen batzar kolektiboetan izandako eztabaidetatik sortu zirela.

90eko hamarkadan, genero *mainstreaming*-a agertzen da. Estrategia hau Emakumearen Mundu Konferentzian (Beijing, 1995) formulatu zuten lehendabiziko aldiz, eta helburu zuen ekintza jakin edo puntualik ez egitea, baizik eta birdefinitzea administrazio desberdinek aurrera eramandako jarduketak, modu aktiboan aritzeko berdintasuna lortzeko bidean. Abiapuntua zen genero-erlazio sistemikoak eta sistematikoak zeudela, Alba Alonsok argitaratutako lanean jaso bezala: *El mainstreaming de género y sus nuevos desafíos: repensando el concepto de igualdad(es)*.

Horrela, estrategia hau garatuta, ekintza espezifikoak aplikatzeaz gain, ikuspuntu estruktural eta eraldatzailea ere hartuko zuen gaiak, izan ere, neurri politikoak hartzen zituztenek berdintasun-ikuspegi txertatuko zuten politika guztietan, maila guztietan eta etapa guztietan.

Halere, zeharkakotasunaren edo *mainstreaming*-aren aplikazioak denbora asko behar du zuzen edo behar bezala ezartzeko; horregatik, beste estrategia batzuen laguntza behar du, aukera-berdintasuneko politika espezifikoena hain zuzen. Berdintasunaren alorreko nazioarteko erakunde espezializatu guztiak bat datoz eta diote bi estrategiak batera jarri behar direla martxan, eta berdintasun alorrean esku hartzeko Estrategia Duala deitzen diote.

Gaur egun, egiaztatu ahal izan da *mainstreaming*-aren estrategiak oso garapen mugatua izan duela, ez dela ezarri administrazioetako eremu guztietan eta ez dela aldaketa sakonik eragin agenda politikoan. Gainera, apustu berri batzuk gehitu zaizkio, bere ezarpenaren mehatxu direnak, auzitan jartzen dutenak zer txertatzen edo integratzen dugun berdintasuna txertatzean. Hau da, nahiz eta halako adostasun bat egon politika guztietan genero-berdintasuna sartzeko beharrari buruz, intersektionalitatearen kontzeptua sartu izanak bestelako desberdintasun gehiago azaleratzen ditu, besteak beste, mota, genero eta orientazio sexuala, adina, etnia, dibertsitate funtzionala, erlijioa, eta abar, eta agerian uzten du horiek guztiak adierazgarriak direla emakumeentzat, ez baitira kategoria-batuketa soil bat, baizik eta egoera bakar eta kualitatiboki desberdin baten eragile.

Hala, Europar Batasunak, era askotako desberdintasunen aurka gaur egun egin duen apustuan, arkitektura instituzionaleko eredu berri bat planteatu du: batetik, ikuspegi bat garatu du desberdintasunak barneratzen dituen arau eta zuzentarauen onarpenean, eta bestetik, apustu egin du erakunde bakar bat sortzeko, era askotako desberdintasunei erraztasun handiagoarekin eta modu ekitatiboan erantzun ahal izateko, eta hala, denei aurre egin ahal izateko.

Europar Batasunaren ikuspegi integratu honek inpaktu positiboa izan du diskriminazioaren aurkako legegintzan, izan ere, eskubide indibidualen zabaltze bat ekarri du eta pauso bat gehiago izan da desberdintasunen arteko hierarkiak ezabatze bidean. Nolanahi ere, hainbat eztabaida ere eragin ditu: batetik, eztabaidetako bat zentratu da araudiari aplikatutako ikuspuntu integratuaren efizientzian, uste baita lege bakar batek ezin ditzakeela desberdintasun guztiak barne hartu; eta bestetik, akademiko eta aktibista feministek beren kezka agertu dute ikuspuntu berri honek, zeina oso zentratua dagoen diskriminazioaren aurkako borrokan, ez ote duen ahulduko genero-politikek



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

hartu duten ikuspegi eraldatzailea, ze, desberdintasun guztiei ekiteak eta erakunde komun ez-espezializatu bat egoteak atzerakada garrantzitsu bat ekar dezakete genero-politiken garapenean.

2.1.- Emakumeen etxeak gune edo laborategi gisa, agenda feminista erakundeen jardueran sartzeko.

Azken urteotan, martxoaren 8ko nazioarteko grebarako deialdiak direla-eta nazioartean izan diren mobilizazioek agerian utzi dute Mugimendu Feministaren goraldia, nola arlo teorikoan, hala antolaketarenean. Mobilizazio horietan, beste aldarrikapen askoren artean, honakoak exijitu dira: feminismo intersektionala; indarkeria matxistaren aurkako lege eta jarduketa eraginkorrak; eskubide sexual eta erreproduktiboak; segurtasun juridikoa emakume migratzaileentzat eta errefuxiatuentzat; baimen berdinak eta transferiezinak; menpekotasuna dutenei laguntzea; etxeko langileentzako eskubideak; pentsio duinak, eta abar.

Testuingurua honetan, baieztatu dezakegu feminismoak protagonismoa irabazi duela eta leku esanguratsu batean kokatu dela erakundeei bere eskaerak eta aldarrikapenak egiteko.

Kalean planteatu diren exigentzia feminista horiek zalantzan jartzen dute sistema hau, zeina gizarte-desberdintasunean eta genero-diskriminazioan oinarritua baitago eta, desberdintasuna areagotzeaz gain, desberdintasun horretaz elikatu ere egiten baita betikotzeko.

Beraz, beharrezkoa da berrikustea ezartzen ari diren politika publikoen estrategiak eta esku-hartzeen mailak, eta aztertzea ea sartu ote daitekeen agenda feminista politika instituzionalean. *Berdintasunari buruzko nazioarteko kongresuan (2019) Mireia Espiauk aurkeztutako txostenean — Retos de las políticas públicas de igualdad en la CAE ¿Es posible la inclusión de la agenda feminista?—*, ekarpen sorta bat jasotzen da, bat datozenak eskuartean dugun gai honekin.

Lehenik eta behin, Mireia Espiauk adierazten du ez dagoela zalantzarik erakundeen jardunean sartu direla hainbat termino eta diskurtso feminista (adierazpen instituzionalak martxoaren 8an, azaroaren 25ean,...), eta bilakaera bat ere egon dela zenbait balio izendatzeko eta ikustarazteko, baina kezka handiegia dago garapen instrumentalean, eta administrazio-prozeduretan (kontratuetako klausulak, diru laguntzak, genero-inpaktuaren ebaluazioa, eta abar) eta horrek jardunaren helburua baztertu egin du, zeinak zerikusia duen gizarte-inpaktarekin eta eraldaketarekin.

Ondorioz, Espiauk dioen bezala, kontua ez da gaur egun dugun agendan genero-ikuspegia txertatzea, baizik eta agenda berri bat egitea eragileekin. Horretarako, *funtsezkoa da erakundeak lehentasuna ematea kolektibo eta elkarte feministak bultzatzeari eta sendotzeari, baldin eta horiekin agenda bat egin nahi bada*. Alegia, lagundu behar dira prozesu estrategikoak, transformazio sakonak ekarriko dituztenak, hala, agenda politikoa garatu eta posizionatu ahal izateko, eta gainera, sendotu ahal izateko Mugimendu Feminista bera eta bere egiturak, sareak eta aliantzak.

Gainera, Espiauk bere txostenean dio, nahiz eta ahalegin handia egin den emakumeen eta gizonen desberdintasunak ikustarazteko eta kuantifikatzeko (ponentziak, azterketak, prestakuntza...), jokalekua konplikatu egiten dela justizia soziala hobetu nahi denean bizitza gero eta prekarizatuagoei birbanatze materialaren bidez erantzunda.



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

Era berean, Mireia Espiauk baieztatzen du aurrerapauso handiak eman direla politika publikoetan eta, ondorioz, emakumeen eskubideetan, baina hori egin dela *ahultasuna ezaugarri duen politika publiko baten bidez, erreferentziala ez den politika baten bidez, sisteman apenas pitzadurarik sortzen duten eredu moldagarriak erabilita. Politika publiko horiek, sarri, praktika boluntaristen ingurukoak dira, eta posizio hauskorra dute arkitektura instituzionalean, ondorengo ezaugarri hauek erakutsi bezala: berdintasun erakundeek ez dute errekonozimendurik, posiziorik eta autoritaterik, baliabide ekonomiko marjinalak dituzte portzentualki, behar adina langile ez, eta daudenak, lan-baldintza ezegonkorretan, eta aldaketa eta borondate politikoen pean.*

3.- TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUAREN DEFINIZIOA

3.1.- Tolosaldeko Emakumeen Etxeari buruzko aurrekariak eta partaidetzarako prozesua

Tolosan, Emakumeen Etxearen aldarrikapena (lehendabiziko aldiz) Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren (2009-2011) ebaluazioan egin zen, eta 2012an, Tolosako emakumeek espazio propio baten eskaera egin zuten.

Ildo horretatik jarraituz, 2015ean, Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa eta III. Planean (2015-2020), berriro ere emakumeentzako espazio fisiko bat sortzeko beharra jasotzen da Jabetza eta Partaidetzaren 2. ardatzeko 2.1.1.4. eta 2.1.1.5. helburu espezifikotako neurrien artean.

2016an, Tolosako Plangintza Partekatuan (2017-2027), *Tolosatzen* programaren barruan, 1. ildo estrategikoan (Tolosa, pertsona ardatz duen herria), ordura arte aldarrikapen izan zena neurri zehatz bihurtu zen, 1.3.3. neurria, hain zuzen ere.

Horrela, 2016an, ordezkari politikoak eta emakumeen taldeko ordezkariak Basauriko eta Donostiako etxeetara joan ziren, gune horietan emandako esperientziak aztertzeko eta proiektu honen abiapuntu bat izateko.

Urte horretan bertan, era berean, Emakumeen Etxearen Lantalde Politiko Teknikoa sortu zen. Talde horretan biltzen dira Tolosako Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoetako ordezkariak eta Mugimendu Feminista nahiz emakumeen taldeetako ordezkariak. Berastegiko eta Asteasuko alkateak talde honetan integratzen dira. Talde honen helburua da, besteak beste, emakumeekin elkarlanean proiektuaren inguruko zehaztapenak egitea. Horren haritik, hainbat gai tratatu dira: etxea sortzeko arrazoiak, definizioa, lan-ildoak, eskainiko diren zerbitzuak, antolamendua, kudeaketa eta abar.

2017ko udaberrian, zenbait feminista eta emakume-talde elkartu eta Tolosaldeko Emakumeen Etxearen eskaerari indarra eta forma ematea erabaki zuten. Horren inguruan hitz egiteko bilera ireki bat antolatu zen eta izugarrizko arrakasta izan zuen. Eskualde osorako izango zen Emakumeen Etxe bat behar zela ondorioztatu zen, Tolosan kokatua, eta parte-hartze prozesu bat beharrezkoa zela emakumeek nolako etxea nahi zuten erabakitzeko. Eskaera horrekin 300 sinadura inguru bildu ziren.

Halaber, Berdintasun Departamentuaren 2018ko aurrekontuan, 20.500 €-ko diru-kopurua aurreikusi zen enpresa bat kontratatzeko, proiektu honen inguruan prozesu parte-hartzaile baten bidez hausnarketa bat egiteko herritarrekin, bereziki emakume-taldeekin.



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

Gainera, iazko martxoaren 8ko greba feministaren testuinguruan, Tolosaldeko Asanblada Feminista sortu da. Bere erronka nagusia Emakumeen Etxea sortzea da, eta, horri begira, eskualdeko emakumeen eta eragileen arteko sareak eraikitzea.

Beraz, 2018ko maiatzean, hasiera eman zitzaion parte-hartze prozesuari eta bi lan-talde gehiago sortu ziren: Talde Eragilea (Tolosaldeko Asanblada Feministako ordezkariak, emakumeen taldekoak, emakume norbanakoak eta Tolosako Berdintasun teknikariak osatutakoa) eta Emakumeen Gune Zabala (interesa duten eskualdeko emakume orok). Prozesu parte-hartzailea Elhuyar Aholkularitzako teknikariekin garatu da.

Horrela, prozesu parte-hartzailea bi fasetan garatu zen: lehen fasean, maiatzean eta ekainean, etxearen printzipioak, helburua, nolakotasuna, erabilera eta jarduerak definitu ziren; eta bigarren fasean, irailetik abendura bitartean, etxearen kudeaketa-eredua, antolaketa, baliabideak eta abar definitu ziren. Prozesuan zehar, guztira, eskualdeko 104 emakume inguruk hartu zuten parte.

Talde Eragileak egindako proposamena Tolosaldeko udal ordezkari guztiei aurkeztu zitzaion, otsailaren 18an egindako bilera batean, eta bertan erabaki zuten udal bakoitzak eraman zezala osoko bilkurara mozio bat, adieraziko zuena Etxearen proiektua babestuko zela, proiektu hori sozializatu eta ikusgai egingo zela udalerrri bakoitzean eta aurrekontu-partida bat aurreikusiko zela giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak jartzeko, Etxearen jarduerak egin ahal izateko.

Lantalde Politiko Teknikoa proposamen hori aztertzen eta bere bideragarritasuna eta martxan jartzeko aukerak aztertu ditu, besteak beste, kudeaketa, funtzionamendua, Tolosaldeko udalek jarriko dituzten edo jar ditzaketen baliabideen inguruan emakumeek adostutakoa; eta proposamen berri bat landu du.

2019ko urritik aurrera, lehenengo lan bezala, Lantalde Politiko Teknikoan aurkeztu eta kontrastatuko dira egindako proposamenak, eta parte-hartze prozesuan parte hartuko duten emakumeekin ere kontrastatuko dira, den artean adostasunera iristeko saiakera egiteko. Ondoren, dagokion administrazio-espedientea irekiko da, behar bezala dokumentatuta, gero ebatzi ahal izateko.

3.2- Proiektuaren arrazoiak eta abagunea

Tolosaldeko emakumeentzat leku bat sortzeko irizpide nagusiak hauexek dira:

Proiektu berezia izatea, abangoardista eta eskualdera nahiz Erkidegokora begira egindakoa. Euskal Herriko berdintasun-politiken alorrean eredu izatea, baita emakumeen arteko topaketarako, hausnarketarako eta eztabaidarako lekua izatea ere, tokian tokikoa mundu mailakora sartzea, eta horrenbestez, emakumeen aniztasunaren eta pluraltasunaren alde egitea.

Tolosaldeko udalek egungo legealdian berretsi duten konpromiso politikoa aipatu lekua eratzeke. Edozer prozesuko oinarritzko gaia da, eta konpromiso horrek ahalik eta zabalena izan behar du, eta era berean, bere proposamenei eta ondorioei estu lotua. Halaber, gainerako erakundeekin aliantza sendoak eratuko ditu, beraien arteko kooperazioa eta elkarlana, batik bat, Emakunderekin



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, sentsibilizaziorako eta prebentziorako programak sustatzeko, hain zuzen ere.

Emakumeen gune horretan landuko diren gaiak lotuta egongo dira egungo agenda feministarekin eta berdintasun-politikek sortzen dituzten ikuspegi, adierazpen eta galderekin. Era berean, lotuta egongo da eskualdeko emakumeen mugimenduen arteko aliantza, elkarriketa, hausnarketa eta topaguneekin.

Apustu honetan, emakumeen eta teoria feministaren azterlanak ikertu eta analizatzeko lekua eratzea da helburua, eta horren bidez, teoria feminista garatzen lagundu eta zientzia ez-androzentrikoa bultzatu nahi da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna are gehiago garatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da jakintza-alor anitzeko lantaldea izatea, prestakuntza akademiko desberdina eta lan-esperientzia anitzeko jendeak osatuko duena, azken finean, elkarrekin lan egingo baitute guztien arazoak konpontzeko. Helburu hori lortzeko hainbat jarduera proposatuko dira; besteak beste, ikerkuntza-proiektuetan zuzendaritza eta parte-hartzea sustatzea; doktore-tesiak aurkeztea; eta ikastaro eta hitzaldi interesgarriak antolatzea eta zabaltzea.

Proiektu iraunkorra da, denboran zehar eraginkor irauteko ezinbesteko baliabideak sortzeko gaitasuna duelako. Iraunkortasun hori Tolosako Udalak eta eskualdeko administrazioak bermatuko dute honen bidez:

Proiektuak sortzen dituen jarduerak edo onurak iraunarazteko ezinbestekoa da gaitasun edo baliabide teknikoak edukitzea (Tolosako Udaleko Berdintasun Saileko teknikariak eta eskualdeko udalek kontratatutako duten dinamizatzailea).

Eta baita baliabide ekonomikoak aurreikustea ere, gastu hauei aurre egiteko:

- Eraikinaren mantenu eta ohiko gastuak (langileenak, baliabideenak, espazioen mantenimendua, konponketak, etab).
- Berdintasun Sailak sortzen dituen kostuak, garatzen dituen jarduerak, proiektuak eta programak finantzatzeko erabiliak.
- Tolosaldeko Asanblada Feministak eta emakumeen elkarteek egiten dituzten jarduerak garatzeko kostuak, hitzarmen edo dirulaguntzen bidez eskuratutakoak.

Laburbilduz, giza baliabideak nahiz materialak eskuratzeko behar diren gastu guztiak onartuko dira, bai epe laburrean, bai epe ertainean.

Eskualdeko Mugimendu Feministak eta emakumeen taldeek proiektu horren iraunkortasuna bermatuko dute, proiektuarekin bat datozen heinean, eta diseinuan, inplementazioan, jarraipenean eta ekipamenduaren ebaluazioan inplikatzeko diren heinean. Proiektu hori emakumeen era askotako behar eta itxaropenei erantzuteko modukoa izan dadin, ezinbestekoa da emakumeak proiektuko partaide izatea eta, era berean, proiektua euren dela sentitzea eta haren eragin positiboak epe luzera iraunaraztea.

Eta azkenik, gune horren bermatzaile izango da, eta horretarako, jardueren, zerbitzuen eta programen agenda zabal eta askotarikoa antolatu eta bultzatuko du, era askotako emakumeak (etnia, adina, gizarte-maila, dibertsitate sexuala, erlijioa... edozein izanik ere) bertatik igaro



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

daitezen. Oinarrizko irizpide horien helburua da ekipamendu horri bere existentzia justifikatzeko moduko zilegitasuna eta nortasuna ematea.

Gune irekia da, eskualdeko herritarrak eztabaidan sartzeko helburua duena. Auzo guztietan, edozein motatako jendea erakartzeko moduko jarduerak (emakumeak, gazteak, adinekoak, etab) garatuko ditu.

3.3.- TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN HELBURUAK ETA JARDUKETA-ILDOAK

3.3.1.- HELBURU OROKORRA

Emakumeen topaketa, eztabaida, ikaskuntza eta ahalduntzerako espazio kolektibo bat izatea, agenda feminista kokatu ahal izateko politikaren erdiko ardatzean, feminismoaren helburu politikoak sarturik, desberdintasunak eta beren intersekzio posibleak kontuan harturik, oraingo agenda inplikaturako eragileekin zabaldurik eta beharrezko tresnak eta metodologiak berriturik, horren helburua delarik laguntza ematea eta prozesu estrategikoago eta eraldatzaileagoetarantz joatea, zertarako-eta, Tolosaldeko eskualdeko bizitzaren arlo guztietan emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko.

3.3.2.- JARDUKETA-ILDOAK

3.3.2.1.- Emakumeen asoziazionismoa eta partaidetza sozio-politikoa sustatzea eguneroko bizitzaren arlo guztietan

Emakume guztien partaidetza-modu desberdinak bultzatzea, eraldaketa sozio-politikoa lortzeko, eta eragina izatea, ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik, gizartearen esparru guztietan. (Behatoki kritikoa)

Emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatzea, bai maila indibidualean, bai kolektiboan. Horretarako lan egingo da berezko espazio batean, non posible izango den genero-mendekotasuna haustea eta emakumeen askatasuna erraztea.

Harremanak estutzea MFarekin eta Tolosaldeko emakume-taldeekin, eta kolektibo horiek indartzeko behar diren baliabideak ipintzea, batetik, prozesuei lagunduz, eta bestetik, errespetatuz beren posizionamenduak eta erakundeen jarduerari buruzko eztabaidak.

MFa eta emakume-taldeak indartzea, gaur egungo testuinguruan zabaltzen ari diren ideia atzerakoi eta feminismoaren aurkakoei aurre egiteko, berdintasun handiagoko agertokietarantz joateko geure eskubideen erabileran.

Asoziazionismoa eta emakumeen sareak sustatzea, elkarrekin lan egiteko eta sinergiak elkartzeko, adin, jatorri, klase, aniztasun funtzional, ideologia, sexu-joera eta identifikazio, erlijio, eta abarren inguruan, indarrak bateratuz eta eskualdeko Mugimendu Feminista indartuz.

Emakume-taldeek partaidetza-tokietan duten agerikotasuna eta presentzia handitzea, politikan eragiteko gaitasuna indartuz; eta emakumeen sareekiko zein mugimendu sozialekiko sinergiak erraztea eta esperientziak trukitzea.



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

3.3.2.2.- Begirada feminista txertatzea eskualdeko erakundeek sustatutako politika, programa eta proiektuen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.

Inplementatzen ari diren politika publikoen estrategiak eta esku-hartze mailak berrikustea, eta aztertzea posible ote den agenda feminista politika instituzionalean txertatzea, zertarako-eta, prozesu estrategikoen babesaren alderantz joateko, eta horrela aldaketa handiak egitea agenda politikoa garatu eta kokatu ahal izateko eta, gainera, MF bera, bere egiturak, sareak eta itunak indartzeko.

Desberdintasuna agerian jartzea eta desberdintasunaren diagnostikoa kuantifikatu ahal izatea (txostenak, azterketak, prestakuntzak, e. a.). Gauzak korapilatu egiten dira noiz eta, emakumeen bizitza gero eta prekarizatuagoi erantzun bat emateko asmoz, joan nahi denean, birbanaketa materialaren bidez, justizia sozial handiagoko esparruetara.

Antolakuntza-kultura bat sustatzea, balio-aldaketa bat sortu eta Udalak berdintasun politiketako duen konpromiso politikoa eta teknikoa finkatuko duena.

Egiturazko, administrazio eta kudeaketako beharrezko baldintzak finkatzea, Tolosako politika publikoen diseinuan eta garapenean perspektiba feminista gehitzeko aukera emango dutenak, Tolosako udalerrian emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko azken xedearekin.

Erakunde arteko (Tolosaldeko udalen, Foru Aldundiaren eta erkidegoko erakundearen artekoa) koordinazioa eta partaidetzazko demokrazia erraztuko dituen lan-eredu batean aurrera egitea, berdintasun-politikak, praktika egokien transferentzia eta kudeaketa publikoaren hobekuntza garatzeko gako gisa.

3.3.2.3.- Emakumeen bizitzako baldintzak ez ezik, gizartean duten kokapena ere hobetzen laguntzea.

Emakumeen bizitzako baldintzak hobetzeko ez ezik, emakumeei ondasun eta baliabide ekonomiko, politiko, sozial eta kulturaletarako sarbidea errazteko lan egiten duten jarduera eta programen garapena sustatzea eta koordinatzea.

Fokua lan-munduan jartzea. Udalerrian sexismoak egituratutako lan-munduaren ezaugarrien berri ematea (emakumeek kontratu txarragoak dauzkate; gizonak baino emakume gutxiago dago ardura duten postuetan, % 25 gutxiago irabazten dute, lan-baldintza ezegonkorragoak, e. a.). Hiritarrei etxeko lanak eta merkatua banatu behar direla ikustaraztea, eta sentsibilizatzea. Emakumeen pobrezia eta bazterketa irakurketa politikoa planteatzea.

Emakumeek egindako lanak balioan jartzea. Soldata duten eta ez duten zaindarien laneko baldintzak agerian jartzea (prekarietatea, kontraturik eza, bakardadea, soldata txikiak, ordutegiak...) eta "normaltasun" egoerarekin haustea. Baita ere, pertsonen zaintza udal politikaren erdian jartzea, zaintza-lan duina sustatzeko baldintzak sortzea, dela familia-giroan, dela maila profesionalean, fokua zaindarien eskubideetan jarritz.

Emakumeak gizarteratzeko eta laneratzeko orientabideak ematea eta jarraipena egitea. Ekintzak garatzea emakumeak araututako lan-merkatuan txertatzen laguntzeko, laguntza emanez hobetze-



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

prozesuei, emakumeen gaitasun profesionalak hobetzeko prozesuei lagundurik, beren protagonismoa errespetatuta eta eraldaketa soziala egiten eta, halaber, emakumeen egoera profesionala eta pertsonala hobetzen eta autonomia ekonomikoa hobetzen lagunduta.

Prebenitzea, detektatzea eta artatzea elkarri lotuta dauden desberdintasun askotarikoak, emakumeek aldi berean bat baino gehiago jasan ditzaketenak; horren helburua da aztertzea politika publikoek nola erantzun diezaieketen desberdintasunoi, jardura guztietan ikuspegi feministaren txertaketan oinarritutako ikuspegi eraldatzaile eta integral batetik (egoera administratibo irregularrean dauden emakumeak, bakarrik utzitako adineko emakumeak, indarkeria matxista, esplotazio sexuala, langabezian edo lanbide prekarioetan dauden emakume gazte kualifikatuak, familia gurasobakar amadunak, xenofobia, lesbofobia, transfobia, e. a. jasaten duten emakumeak).

3.3.2.4.- Emakumeen aurkako indarkeria matxista eta eraso sexualak deuseztatzen laguntzea

Hiritar guztiei eta, batik bat, emakumeei informazioa, prestakuntza, sentsibilizazioa eta kontzientzia emateko ahaleginak egiten duen toki bat izatea, genero-estereotipoak eta indarkeria matxistaren inguruan dagoen estigmatizazioa hausteko. Indarkeriaren begirada zabaltzea. Hausnarketa kolektiboko eta eztabaidatzeko prozesuak sustatzea indarkeria matxista eta eraso sexualen inguruan. Problematika honekin lotutako mitoak deseraikitzea eta mikromatxismo eta bortxaketaren-kulturaren arteko hari eroalea identifikatzea.

Etxearen bidez indarkeria-kasuak detektatzea, arlo honetan gaitutako profesionalen bidez, eta gainera, emakumeak prestatuz eta inplikatur, sinergiak sortzen dituen konplizitate kolektiboa bilaturik ikuspegi enpatiko eta solidario batetik (udaleko pertsonala, irakasleak eta erabiltzaileak). Prebentzioa sustatzea, halako moldez non normalizatutako eta ikusezin bihurtutako indarkeria ageri utzi ahal izango baita, laguntza sozial eta instituzionaleko kultura bat sortuz eta hezkidetzak eta genero-estereotipoen gainditzea sustaturik.

Harrera, deribazioa eta arreta integrala sustatzea ikuspegi feminista eta interseksional batetik, prozesuei lagunduta eta indarkeriak eragindako emakumeen erabakiak errespetatuta eta, halaber, ahalduz eta autodefentsa-prozesuak sustatuta, duintasuna eta autonomia itzultzeko eta beren suspertze osoa bermaturik.

Salaketa publikoa bultzatzen duen toki bat izatea, ikustarazteko, kontzientziatzeko eta indarkeria matxistari eta eraso sexualeri erantzun biribil bat emateko. Sustatzea emakumeek duten ordaina jasotzeko eskubidea, zeinak berekin baitarama bizi izandako indarkeria, salaketa eta beren hitza behar bezala entzun diezaieten eskubidea, zauritutako eskubideak berriz jarri eta jasandako indarkeriaren inpaktuak sozialki onar daitezen.

3.3.2.5.- Berdintasunaren inguruko ikuspegi berrien sorkuntza, ikerketa eta antolaketa sustatzea

Sustatzea eta zabaltzea, batetik, diziplina anitzeko jakintzak, eta bestetik, emakumeek eta Mugimendu Feministak historian zehar egindako ekarpenak, bai eta sistema heteropatriarkalaren berrikuspen eta kritika batetik egin litezkeen ekarpenak ere.



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

Etxearen erabiltzaile diren emakumeentzat, ikaskuntza feminista kolektibo eta kritikoko espazio eta prozesuak sustatzea, zeinak aukera emango baitiete begirada beste errealitate batzuetara zabaltzeko eta beste feminismo batzuk ezagutzeko, ikuspegi hegemoniko eta etnozentriko batetik urruti daudenak, eta horrela emakume guztiek prozesu eta espazio kolektibo baten parte sentitu ahal izan daitezen.

Prestakuntza ikastaroak eta tailerrak sustatzea, baita hiritar guztiei eta, batik bat, emakumeei zuzendutako sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak ere, rol eta estereotipo tradizionalak hausten lagundu eta giza-emakumeon gizarte berdinzaleago bat lortzera bideratuak.

Sustapena eta laguntza ematea lkerketa-lanei, tesinei eta/edo doktorego-tesiei, baldin eta aukera ematen badigute emakumeen egoera erreala ezagutzeko eta ikustarazteko, eta eskaintzen badituzte alderdi teoriko eta praktikoak, gero haien gainean eztabaidatu ahal izateko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten ekintza eta programa etorkizunekoak diseinatu ahal izateko.

Pixkanaka, modu selektiboan eta emakumeek adostuta, beharrezkoa da izaera mistoko jarduerak eta topaketak sustatzea, balio eta aurreiritzi androzentrikoak eraisteko eta portaera berdinzaleago berriak eraiki eta identifikatzeko.

Sustatzea itunen ezarpena, batetik, lortu beharreko berdintasunaren gaineko hausnartze-prozesua hasi duten gizonekin, eta bestetik, arlo horretan lanean denbora asko daramaten emakumeekin. Horrekin nahi dena da bidean elkargune baten ezarpena faboratzea.

Itunen ezarpena sustatzea espazio mistoetan lan egiten duten gizon-emakumeekin, genero-ikuspegia sektore desberdinetan txertatzen duen aldaketa soziala lortzeko helburuarekin, horrela ehun sozial zabalagoa egituratu ahal izan dadin.

4.- ESPAZIOAREN KOKAPENA. INPERNU KALEA, 7KO ETA 10KO BI LOKALAK OKUPATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA.

4.1.- Etxearen kokapena

Tolosaldeko Emakumeen etxea Tolosako erdialdean kokatuko da, Inpernu Kalea, 7ko eta 10eko bi lokaletan, hain zuzen.

4.2.- Inpernu kaleko, 5, 7 eta 10eko bi lokalak okupatu beharraren justifikazioa.

Hasieran, Hiritik At enpresak, Tolosako Kultur ekipamenduaren azterketa egin ondoren, Tolosaldeko Emakumeen Etxea Korazonisten ekipamenduan eraikitzea proposatu zuen, Inpernu kaleko 5 eta 7 eraikinetan, hain zuzen ere.

2018an, Tolosako Udaleko Hirigintza Azpisailak Emakumeen Etxearen aurreproiektua garatzeko CBA arquitectos enpresa kontratatu zuen. 2018ko urriaren 4an, Tatiana Ramirezek, Tolosako Udaleko arkitektoak, CBA arquitectos enpresako arkitekto den Edurne Aperribayri helarazi zion Tolosako Udaleko Berdintasun Departamenduak egindako txostena Tolosaldeko Emakumeen Etxearen inguruan, non proposamena jasotzen zen: etxearen helburuak, jarduera ildoak, espazio fisikoaren deskribapena, edukiak eta funtzioak, antolaketa espaziala eta jarduerak eta zerbitzuak.



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

Urriaren 15ean, Edurne Aperribay bildu zen Tatiana Ramirez eta Begoña Tolosa zinegotziarekin. Bileran horretan, enpresako arkitektoak ohartarazi zuen Berdintasun Departamenduak egindako txostenaren arabera, Inpernuko 5 eta 7 eraikinetan ez zegoela behar adina espaziorik txostenean jasotako zerbitzuak eta jarduerak garatu ahal izateko. Bileran horretan, enpresako arkitektoari eskatu zitzaion beste proposamen bat egiteko, aldaketa batzuk txertatzeko proposatuz.

Urriaren 22an, enpresako arkitektoak proposamen berria helarazi zien Berdintasuneko eta Hirigintzako teknikariei, proposatutako aldaketak txertatu ondoren.

Azaroaren 5ean, Berdintasun Departamenduak helarazi zion enpresako arkitektoari Tolosaldeko Emakumeen Etxearen Talde Eragileak egindako bilerako akta. Akta horretan, Talde Eragileak ekarpenak egin zizkion Berdintasun Departamenduak etxearen antolaketa espazialaren inguruan egindako proposamenari, eta honako erabilera eta espazioak gehitu zituen: liburutegia, sukaldea, emakumeek elkartzeko gela eta neurri desberdinetako gela gehiago.

Behin Talde Eragileak egindako proposamena aztertu eta gero, Udaleko Berdintasuneko eta Hirigintzako teknikariek eta enpresako arkitektoak alkatearekin bileran egin ondoren, adostu zuten kontratatutako enpresak aurkeztu zuen aurreproiektuari moldaketa egitea, kontuan izanda, batetik, etxeko espazio eta erabileraren antolaketari buruz ateratako ekarpenak eta proposamenak, eta, bestetik, Inpernu kaleko 10eko eraikina.

Edurne Aperribay Ulacia arkitektoak Inpernu kaleko 5 eta 7ko eta 10eko lokalak okupatzeko beharraren justifikazio-txostena erantsiko da (I. Eranskina) ¹

5.- TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAREN ESPAZIO FISIKOAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

Jarraian azalduko den atalean, hasieran Berdintasun Sailak Tolosaldeko Emakumeen Etxearen inguruan enpresako arkitektoari helarazi zion txostena agertuko dugu, non proposamena jasotzen zen: etxearen helburuak, jarduera ildoak, espazio fisikoaren deskribapena, edukiak eta funtzioak, antolaketa espaziala eta jarduerak eta zerbitzuak.

Hala ere, atal honi erantsi behar zaizkio Tolosaldeko Emakumeen Etxearen Talde Eragileak egindako ekarpenak (4.2.- Inpernu kaleko, 5, 7 eta 10eko bi lokalak okupatu beharraren justifikazioa) atalean azaltzen direnak.

Tolosaldeko Emakumeen Etxeak hainbat ezaugarri izan behar ditu, herriarentzat eta eskualdearentzat erreferentzia-ekipamendua izatea nahi badugu. Beraz, baldintza hauek bete behar ditu:

- Ekipamendua herriko leku zentral batean egotea, ikusteko eta iristeko erraza den leku batean kokatua.

1 Edurne Aperribayk aurkeztutako Aurreproiektuaren-Memoria txostenean, Berdintasun Departamenduak egindako txostena, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen inguruan eta Tolosaldeko Emakumeen Etxearen Talde Eragileak egindako ekarpenen akta txertatzen dira.



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

- Iristeko erraza: eskualdeko herri batetik edo bestetik datozen emakumeek garraio bide publiko bakarra erabiltzeko aukera izan dezatela, eta eraikina eskualdeko herriko garraio bide-mota guztietatik gertu egon dadila
- Oztopo arkitektonikoei dagozkien ere, irisgarritasuna bermatu behar da, leku hori mota guztietako pertsonen irekia egoteko.
- Gune malgua eta erabilera anitzekoa: barne-egiturak unean uneko beharren arabera espazioak aldatu eta moldatzeko modukoa izan behar du. Espazioak zabalak eta garbiak izango dira, baina, era berean, giro lasai eta atseginak eratze modukoak, horrelako giroa behar duten jarduerak egiteko. Horretarako, ezinbestekoa da funtzio anitzeko areto handiak moldatzea, traba eta oztoporik gabeak, eta horrela, zabaltzeko eta txikitzeko eskaerak batera daitezke, horma mugikorren bidez espazioak zabaltzeko eta txikitzeko baitaitezke.
- Espazio zabala eta eroso bat bermatzea, ariketa fisikoak eta mugimenduak egiteko, esterilekin lurrian egoteko. Horretarako, lurrian ez du oztoporik egon behar.
- Argitasuna espazioan: argi naturalari sartzen uzten dioten eta espazioa aireztatzen duten leihoak izan behar ditu. Koloreek ere eragina dute azpiegituraren argitasunean; beraz, kolore argiak, atseginak eta alaiak erabiltzea proposatzen da.
- Espazio irekiez inguratutako eraikina izatea ezinbestekoa da. Kanpora irekita dagoen espazioa behar du izan, eta aurrealdeak erakargarriak, herritarrei bertan sartzeko gogoak pizten dituenak.
- Espazio ekologikoa: arkitektura ekologikoa eta ingurugiroa zaintzeko moduko planteamenduak bultzatuko dira, eta horretarako, energia alternatiboak, material naturalak eta birziklagarriak erabiliko dira.

5.1.- Espazioaren funtzioak

Eraikinak bi espazio izan behar ditu, elkarren artean lotuak eta, aldi berean, bereziak, independenteki erabiltzeko modukoak eta gainerako espazioetan eraginik ez dutenak:

5.1.1.- Berdintasun Saila: Berdintasun Saileko teknikarien lantoki iraunkorra bertan egongo da. Entrepantok kokatuta egongo da.

Lan teknikoa egiteko, kontuan hartuko dira:

- Espazio zabala izatea, teknikariek banakako lana edo talde-lana egiteko, baina, era berean, langile horiek arreta pertsonalizatua eman ahal izateko moduko espazioak izango ditu. Aurreikusten da 5 teknikarientzako lekua izan beharko duela.
- Teknikariek bilerak egiteko gela. Bilera gelak 15 lagun biltzeko espazioa izan behar du, bertan Berdintasun Sailak dituen Protokoloa eta Hezkidetza mahaia eta Berdintasun Batzordeko bilkurak egin ahal izateko.

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

- Komunak.
- Oficce txiki bat, mikrouhin-labea, hozkailua, harraska, armairu txiki bat eta mahai bat aulkiekin.

5.1.2.- Zerbitzu bera emateko espazioa

- Harrera gela. Informazioa emateko lekua, herritarrek kontsultak egin ditzaten emakumeentzako udal zerbitzuei buruz, eta handik kasu bakoitza dagokion sailera bideratuko da. Bertan ere informatzeko material desberdinak (esku-orriak, pegatinak, txapak, eta abar) ikusgai izateko leku bat izan behar du.
- 2 bilera edo zerbitzu-gela gela (gutxienez) bilerak egiteko eta zerbitzuak eta kontsultak egiteko lekua, arreta pertsonalizatua edo pribatua behar den kasuetarako. Gela bakoitzak 4 edo 5 lagunentzako lekua izan behar du.
- Emakumeen taldeek antolatutako jarduerak egiteko lekua izatea eta bertan armairu txikiak edukitzea, emakumeen taldeen materialak gorde ahal izateko.
- Erakusketa-aretoa
- Ekitaldi-aretoa. 60-80 lagunentzako espazioa izan behar du. Espazio honek, aldi berean, 3 geletan banatzeko aukera eman beharko luke. Gelak banatzeko erabiliko den materiala kontuan hartu beharko da, gelen arteko intsonorizazioa bermatuz. Erabilera: Jabetze Eskolako tailerrak antolatzeke, prestakuntzarako, hitzaldiak egiteko edo topaketetarako gelak edota aretoak izateko.
- Jabetze Eskolak 60 jarduera egiten ditu urtean (Literatura Tailerra eta Batukada izan ezik, 20 saio). 2 edo 2 ordu eta erdiko saioak izaten dira normalean, astelehenetik ostegunera (noizean behin, ostiraletan eta larunbatetan). 2017-2018ko ikasturtean, 200 emakumek parte hartu dute Eskolan eta 235 matrikula jaso dira. Partaidetza horren tamainak erakusten du, hastapenetan behintzat, Jabetze Eskolako ikasleak izango direla, teknikariez gain, egunero Emakumeen Etxera joango direnak 6 hilabetez (apirila-ekaina eta urria-abendua).
- Ikuskizun- edota erakusketa-aretoa (espazio berak aukera ematea horretarako).
- Teknologia berrien aretoa (ordenagailuak, ikus-entzunezkoak, etab).
- 2 komun gutxienez lokal bakoitzean.
- Liburutegi-artxiboa
- Atsedeen gunea

6.- JARDUEREN ETA ZERBITZUEN PROPOSAMENA

Emakumeen Etxean jarduera eta zerbitzu hauek antolatzea proposatzen da:

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

Berdintasun Sailaren, Tolosaldeko Asanblada Feministaren eta emakumeen elkarte eta taldeen funtzionamendu eta dinamikarekin lotutako jarduerak:

6.1.- Jarduerak

- Emakumeen elkarte eta taldeen bilerak egitea.
- Koordinazio-bilerak egitea: udaleko sailekin eta kanpoko eragileekin.
- Protokolo Mahaiaren bilerak egiteko gunea izatea.
- Hezkidetza Mahaiaren bilerak egiteko gunea izatea.
- *Guretzako*, Tolosaldeko jatorri ezberdinetako emakumeei zuzendutako harrera eta bizitzarako gaitasunak ikasteko gunea izatea.
- Herriko jaietako antolatzaileekin biltzeko gunea izatea, jaiak berdinzaleago bihurtzeko Behatokia bultzatzeko.
- Jabetze Eskolaren jarduerak egiteko gunea izatea (tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak, eta abar).
- Tolosaldeko jatorri ezberdinetako emakumeei beren eskubideei buruzko informazio orokorra emateko gunea eta arreta sozio-juridikoaren zerbitzuaren gunea izatea.

Kultura-jarduerak

- Proposatuko da emakume zuzendarien bideoak eta filmak ikustea, emakumeen historiarekin zerikusia duten gaiei buruzkoak ere bai, eta Emakumeen Zinemaldia edo Lehiaketa antolatzea.
- Emakume idazleen topalekua, urtez urte eskualdeko emakume asko biltzen dituen.
- Emakumeei buruzko liburuen edo emakumeek idatzitako liburuen aurkezpena.
- Literaturari buruzko solasaldiak edota mintegiak.
- Emakumeek emakumeentzat egindako arte-erakusketak.
- Kontzertuak, antzezlanak, performanceak, etab.
- Prestakuntza-hezkuntza izaera duten jarduerak antolatzea.
- Berdintasun-politikak, teoria feminista, osasuna, indarkeria, ekonomia, kultura eta abar hizpide dituen hitzaldi, mintegi, jardunaldi, ikastaro, prestakuntza, ikastaro labur eta abar antolatzea.
- Eztabaidak, hitzaldiak, mintegiak, prestakuntza-ikastaroak eta abar antolatzea.

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

- Berdintasunari, teoria feministari eta abarri buruzko ikerketa-lanen eta doktorego-tesien aurkezpena.
- Jarduera ludikoak antolatzea.
- Irteerak, jaiak, kirol-jarduerak, jokoak eta mahai-inguruan egiteko jarduerak antolatzea.

Bestelako jarduerak:

- Ate irekiak
- Emakumeen Etxeen arteko topaketak
- Tailerrak: hitzaldiak, ikastaroak, mahai-inguruak, jardunaldiak, monografikoak, maskulinitateei buruzko tailerrak...
- Batzarrak: eztabaidatzeko espazio kritikoak, topaketak, hausnarketak...
- Jarduera ludikoak (jaiak) edo gastronomikoak (bazkariak, afariak, meriendak...)
- Kirol-jarduerak: mendi martxak...
- Kaleko ekintza zuzenak: espazio publikoan emakumeen ikusgaitasuna handitzeko ekimenak; manifestazioak; inauterietako konpartsa...
- Ekimen solidarioak, ikuspegi feminista aintzat hartuko dutenak
- Errealitatearen inguruko azterketak, mapeoak, diagnostikoak, ikerketa-bekak...

6.2.- Zerbitzuak

- Eskubideei, arauari eta legei buruzko informazio eta aholkularitza orokorra, udal esparrukoak, eskualdekoak, lurraldekoak, Erkidegokoak eta estatu mailakoak, enpleguari, hezkuntzari, osasunari, berdintasunari, indarkeriari, pentsioei eta abarri buruz egun indarrean daudenak.
- Emakumeentzako zerbitzuei buruzko informazioa, udal esparrukoak, Aldundikoak eta Erkidegokoak, enpleguari, hezkuntzari, osasunari, berdintasunari, pentsioei, etxebizitzari, aisialdiari, migrazioari eta abarri buruzkoak.
- Egun, Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri duen Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumei Zuzendutako Arreta Sozio-juridikoa Zerbitzuaren gunea izatea.
- Indarkeria Matxistaren biktimak diren emakumei zuzendutako Arreta Psikologikoaren Zerbitzuaren gunea izatea. Indarkeria jasan eta bizirik atera diren emakumeentzako zerbitzu psikologikoa, banantze-prozesuetan dauden emakumeentzat eta gizarte bazterketa jasaten dutenentzat.



TOLOSAKO
UDALA

GAIA: TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA

- Lan-eskaintzei eta lan-poltsei buruzko informazio- eta orientazio-zerbitzua, bai eta diru-laguntzei, ikasketei, ikastaro egokiei eta abarri buruzkoa ere. Ikasketen homologazio-zerbitzua
- *Berdinsex*, Aholkularitza Sexologikoen arreta zerbitzua.
- Lesbiana eta transexualentzako arreta-zerbitzua.
- Kontziliazioa laguntzeko zerbitzua, etxeko jardueren ordutegian unean uneko haurtzaindegi bidez.
- Beharrezkoak izan daitezkeen zerbitzu alternatiboak sortzea (denbora-bankuak, emakumeak laguntzeko eta arreta emateko sare informalak, etab.).
- Tolosaldeko jatorri ezberdinetako emakumeei beren eskubideei buruzko informazio orokorra emateko gunea eta arreta sozio-juridikoaren zerbitzuaren gunea izatea.

PROPOSAMENA

Hori horrela, honen bidez proposatzen dut:

LEHENA.- Onartzea Tolosaldeko Emakumeen Etxearen aurreproiektua, CBA arquitectos enpresako arkitekto den Edurne Aperribay idatzitakoa.

BIGARRENA.- Martxan jartzea proiektua idazteko kontratazio-espedientea.

HIRUGARRENA.- Eskatzea Hirigintza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumena Sailari martxan jar dezala plegu teknikoaren idazketa, kontuan hartuz txosten honetan jasotakoak eta Edurne Aperrybai arkitektoak egindako aurreproiektua.

Tolosan, 2019ko irailaren 19an

Agurtza Zubero Agirregomezkorta
Berdintasun teknikaria